

EUSKAL GOGOETAK

Gaiari heldu baino lehen adierazi behar diot irakurleari ez natorkiola maisukerietan, zerbait irakatsi asmoz, ez. Baizik eta aspaldian dabillala nere buruan mamu bat baketan ere ez nauela ixten eta bakea lortzearren iraitzi behar nuela nigandik eta horretarako onena litekela (*Karmel* honen Zuzendariaren baimenarekin) argitara eman mamu horren sustraia.

Badira jadanik 35 urte, ikastola irakasle gazte batekin nengoen solasean, eta horrelako batean, ziplo, bota nion, esanez

-Zergaitik, ikastolara sartzean, haurrek agurtzen diate andereñoa, egunon ANDEREÑO, Egunon Andereñoa esan beharrez?

-Ba hor Andereño Mugabea delako.

-Eorrek mugabetzen badok bai, baiña haurarentzat zer mugatuagorik Andereñoa baño. Andereñoa zerbait konkretua dok.- Esan nion baiña berak entzun gor egin eta aldeegin zuen.

Hona hemen ba nere idazki mutiri honen gaia: euskal bokatiboan izen arruntetan nahiz adjetiboetan *A* letra mugatzailea erabili behar den ala ez.

Garai hartan (50 urte inguru nituen) oso gutxi irakurria nintzen, jaiotzatik nenkien euskara zarpailla baño ez nenkien, bi-

zitzan lanak zangopilatua nengoen. Gerora, bizimodu erosoagoan hasi nintzen, lehenbizi, irakurri ta irakurri Lehenbiziko liburua HEGATSEZ izan zen.(Ez dut sekulan ahantziko gure Gaiarre famatuak bere izebari idatzi zion gutuna: K(h)emen ongi gaude tia MAITIA...). Jaiotzatiko euskara sakondu, aditz batua ikasi eta zerbait idatzi ere ba....

Zer nolako harridura sentitzen nuen lehenbizikotan IRAKURLE, ADISKISDE, MAIXU, JAINKO, eta horrelakoak irakurtzean. Bainan, minik haundiena eman zidana adiskide batek bidali zidan gutuna izan zen: ADISKIDE MAITE. Egin nuen nere-kiko: honek ez nauk maite, zeren benetan maite banindu ADISKIDE MAITEA idatziko zian. Hori formula bat baino ez duk izan. Ez zuan obe izango Baionako HERRIA aldizkariaren Zuzendari jaunak idatzi zidan bezala ADISKIDEA bertze osagarri-rik gabe?

Nere kezkak eta eritziak azaldu nizkion idazle adiskide bati eta berak esan zidan nere aburuak argitaratzeko nere eskuetan zegoela, bainan, beti ta beti *tradizioa gorde behar zela*.

Honelatan, otu zitzaizdan Euskal Akademiara deitzea eta telefonoa hartu eta dei egin nuen: norbait atera zen baina ez zegoela akademikorik, bihar deitzeko. Hurrengo egunean deitu eta ukan nuen akademikoarekin itz egiteko parada.

Adierazi nizkion nere kezkak eta nere aburua gai honi buruz eta ordez.

-“Desde que nuestro gran Sabino Arana dijo que la A del euskera correspondía al artículo del Castellano ya está dicho todo y punto”.

-Baiña, gizona... joan nintzakion esatera ... baña berak:

-A mí no me vengas con historias”, eta atzea eman eta joan zen bere bidean.

Sabino Aranaren eskutik ote zetorrek ba moda edo TRADIZIO HAU? -esan nuen nere-kiko; eta berehala hasi nintzen bere idatz lanak arakatzen. Begira zer aurkitu nuen bere Egutegi

biskaitarrean honela: "Bigarren aldiz eltzen naiz zure eskuetara IRAKURLE MAITIA. Eramu igandean: NI NAZ, BIAR BA, IRE IRAKASLARIJA? Jaunaren Berbizkundean "EMAKUMIA, zergaitik negar egiten dozu?"

Ildo honeri jarraiki, Frai Bartolome karmeldarrarengana jo dut eta hona zer aurkitzen dudana *Karmel* aldizkari hontan berean (225. Zenbakian): Icuciric, IRAKURLIA, zariana zariana"; or. berean, beraxago: "Ziniztu daikezu IRAKURLIA".

Orain Domingo Agirregana noa, bere *Garoa* eleberrian honela: 22.or.: "Egunon ADISKIDEA"; 24. or. "Ori da bizitza daroazuna GIZONA"; 72.or. "Biotzean ere bai EMAKUMEA?"; 85.or.: "Ollaskorik bear al dezu ANDREA"? eta abar...

Baltzola'tar Frantzizko Abak (S.J.) 1.924an argitaratu zuen esku liburutxo batean, ebanjelioak atalean honako hauek dakartza. Erregue egunean (Luc. II 42-52) "Ene SEMEA zergaitik egin diguzu orrela?"; Nekaldian (Mat.XXVI-XXVII) "Agur IRAKASLEA".

Naiko adierazgarriak direla, uste dut, aipu hauek nola zera-biltzen jakiteko A letra hau gure idazle-arbasoek.

Pentze honen jaubea: Olabide ta Carrera'tar Eramun S.J. dugu.

Jakina da Olabidek, Gasteizen jaioa, 27. urterarte ez zuela euskarik ezagutu ere. Bainan, hemendik aintzina, bero bero sartu zen euskara ikastera, lehenbizitako euskal akademiakoa egin zuten, eta Azkuerekin harremanak ukan zituen, ez beti goxoak, Azkue oso apala zen eta Olabide beroa eta idorra. Sabino Aranaren antzera, uste zuen euskal herritarrak gaizki mintzatzen zirela bere izkuntzan eta horrela dena behar zela berriztatu.

Honela: Mat XXII,16: IRAKASLE, badakigu ... Mat.XXVI,50 ADISKIDE zertara zatoz? Mark. X-20 IRAKASLE, guzi oriek Mark XIV-45 ERABI, esan eta".... Baten baino gehiagotan dakar Olabidek ERRABI hitza Irakasle ordeztu.

Aita Olabidek hiru diszipulu izan zituen, idazle puntakoak izango zirenak: Andima Ibiñagabeitia, Jokin Zaitegi eta N. Ormaetxea, hirurak joan behar izan zuten atzerrira, Francoren bildurrez. Lan haundia egin zuten hirurak euskararen alde, baitik bat "Orixe"k. Idazle honeik jarraiki zioten Olabideri ez honen berrikerietan bai, ordea, daroagun kasuan, bokatibo mugabetuan alegia eta gero idazle euskaldunek oro gaur arte.

Nere euskal kontzientzia hustu dut eta aurrerantzean ea ongi lo egiten dudan.

Uste dut gaia argitu dudala eta orain zerorri dagokizu, irakurle adiskidea, kasu honi buruz gogoetak egitea, ea bat zatozen 85 urteko agure honekin.

Tomas Ureta